

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko martxoaren 12a. IX. urtea. 2.559. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Tolosaldeko 28 udaletako ordezkariak ikurrin erraldoia eraman zuten manifestazioaren aurrean. I.G.L.

## Ikurrina defendatzen jarraituko dutela aldarrikatu dute

Tolosaldeko udalek eta hainbat eragilek ikurrinaren eta euskal ikurren erabilera zabaltzeko deia egin dute, Espainiako bandera udaletxeetan jartzearen aurkako manifestazio jendetsuan 02

## Garcia de Mateos izan da X. Aiztondo Klasikoaren irabazlea

Lizartzako XXV. Insalus Sarian azkarrena Loic Chetout izan da; ikusmina sortu dute, beste behin, bi txirrindulari lasterketek 06

## Ibarra sokatira taldeko mutilek Euskal Herriko txapela jantzi dute etxean

600 kilotan lortu dute garaipena; nesken taldeak lehen jardunaldia irabazi du 500 kilotan 07

## Miel Mari Elozegi 'Luze' bertsolari leitzarra ez da finalean ariko 02

## Peio Olano lizartzarra aske geratuko da gaur, 15.000 euroko bermea ordainduta

Oraindik datarik ez duen epaiketaren zain jarraituko du 03

## Ruben Saralegi «oso pozik», bere lehen apustua irabazita

Leitzako aizkolari gaztea Xabier Mindegiari gailendu zaio 34 segundogatik, azken urteetan apustu batean izan den alderik estuena 07



zozketa

HITZAK harpidedunen artean **Korrikaren lekukoa eramatea** zozketatuko du

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAK kilometro bat erosiko du aurten ere Korrikan. Lekukoa eramatea harpidedunen artean zozketatuko dugu.



Martxoak 14 • Osteguna  
Tolosa

Zozketan parte hartzeko deitu asteartea, 14:30ak baino lehen  
943 65 56 95 telefono zenbakira edo idatzi [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** ditu



**LAGUN ARO GBC**  
Ucam Murcia  
saskibaloia partida

Martxoak 17 • igandea  
12:00  
Donostiako Ilunben

Zozketan parte hartzeko deitu osteguna 14:30ak baino lehen 943 65 56 95 telefono zenbakira.

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera** pare ditu

Kmk '13-ren eskutik Pirritx, Porrotx eta Marimototxen emankizunetarako

Martxoak 16 • larunbata  
12:00 / 17:00  
Tolosako Leidorren





Jendetza bildu zen iragan larunbatean, Tolosako kaleetan zehar ikurrina aldarrikatzeko. I.G.L.

# Ikurrinaren eta euskal ikurren erabilera zabaltzeko deia egin dute udalek

Manifestazio jendetsua egin dute ikurrinaren alde eta Espainiako bandera jartzeko aginduaren kontra

Mikel Iraola Tolosa

Euskal nortasun ikurren defentsa gisa, eta herri bat bizirik dagoela erakusteko, ikurrinaren erabilera zabaltzeko deia egin zuten bailarako 28 udalek, pasa den larunbatean, Tolosan ospatu zen manifestazioaren ondoren.

Geurea ikurrina lelopean, jendetza bildu zen ikurrinaren alde, eta Espainiako bandera ezartzeko aginduaren aurka, eragile sozialek deitutako mobilizazioan. Aurretik eskualdeko udal guztietako ordezkariak ikurrina erral-

doi bat zeramatela, eta dultzainero eta txistularien doinuez lagunduta, zeharkatu zituzten Tolosako kaleak.

Manifestazioa Plaza Zaharrean amaitu zen, eta bertan, Ibai Iriarte, Tolosako alkateak, udal guztien izenean, ez direla «menperatzen utziko» adierazi zuen. «Euskaldunak gara, eta horren irudi da ikurrina. Gurea, maite duguna, defendatzen jarraituko dugu, hori baita herri bat bizirik dagoen seinale, eta bizirik jarraitzeko bide. Ozen diogu geure sinboloa ikurrina dela eta geure herriak Euskal Herria duela izena».

«Probokazio», «eraso» edo «inposaketa» bezalako hitzak erabili zituen Iriartek, udaletxeetan Espainiako bandera ezartzeko agindua definitzerako orduan, eta Carlos Urquijo, Espainiako Go-

bernu ordezkariari mezua helarazi nahi izan zion: «Legea izango duzue alde, ez ordea herria».

Espainiako bandera jartzearren aginduari, herri moduan erantzungo diotela esan zuen Iriartek: «Kaleetik zein instituzioetatik bat eginda, izan dezakegun indarra geldiezina da, izan ere, horrelako erasoen bidez gure askatasun nahia indartzen dute».

Euskal Herria eraikitzeko helburuaren bidean, «probokazioei muzin egin» lanean jarraituko dutela hitz eman zuen tolosarrak: «Koloretako etorkizuna nahi dugu, pertsona eta herrien eskubideak errespetatuko dituen, aniztasuna errespetatuko duena, inposizioen gainetik egongo dena, modernoa eta herritarren-gandik gertu egongo dena».

Horretarako, herritarrei ikurrinak leihotatik zintzilikatzeko, nahiz, sortuko diren beste ekime-

▪ **Bideoa.** Ikusi larunbateko manifestazioko irudiak, eta ondorengo ekitaldia QR kodea eskaneatuta.



netan parte hartzeko deia zabaldu zion Tolosako alkateak.

Gizarte eragileen izenean, berri, Iñaki Aristeta, Bai Euskal Herriari gizarte eta kultur elkarrekin kideak, euskal nortasun ikurren defentsa herritarrei dagokiena adierazi zuen: «Euskal Herria desagerrarazi nahi dute, baina horretarako herritarrek desagerarazi beharko dituzte. Euskal Herriaren aitortza ez da egun batetik bestera lortuko. Inork ez digu ezer oparitu, irabazi egin beharko dugu. Beraz, antolatutako una da, etxetik hasi eta kaleraino, Ipar Euskal Herritik hasi eta Hegoalderaino borrokatu beharko dugu gure herriaren aitortza».

## Miel Mari Elozegi 'Luze', Nafarroako Bertsolari Txapelketatik at

Hirugarren izan da leitzarra Elizondoko finalurrekoan, Aimar Karrika eta Julen Zelaietaren atzetik

Mikel Iraola Leitza

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalerako kanpo geratu da Miel Mari Elozegi Luze. Pasa den larunbatean, Elizondoko Lur aretoan ospatutako finalurrekoan, hirugarren sailkatu zen bertsolari leitzarra, eta beraz, ezin izango du martxoaren 23an, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian ospatuko den finalean egon.

Larunbateko ekitaldian, Aimar Karrika izan zen garaile, eta hortaz, bertsolari auriztarrak jokatuko du txapela lortzeko lehia. Gertu-gertuan izan zituen Julen Zelaia beratarra, bigarren, eta Luze, baina Karrikarentzat izan zen finalerako txartela.

Final horretan arituko den zortzikotea, beraz, erabakita gelditu da. Julio Soto, Xabier Silveira, Aimar Karrika, Erika Lagoma, Jon Barberena, Eneko Lazkoz, Eneko Fernandez eta Oskar Estanga izango dira parte-hartzaileak. Ekitaldirako sarrerak jada salgai daude [www.bertsosarrerak.eu](http://www.bertsosarrerak.eu) atarian.

## → Laburrak

### Hondakinen kudeaketaren inguruko batzar irekia bihar

**TOLOSA** › Hondakinen kudeaketaren inguruan dudak argitu eta iritziak jasotzeko asmoz, batzar irekia antolatu du Sortuk, Ainhoa Intxaurrendiata, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketarako Lehendakari ordearen eskutik. Batzarra 19.30ean izango da, Kultur etxean.

### Korrikaren baitan hitz egiteko bilera, gaur

**AMEZKETA** › Korrikaren inguruan hitz egiteko batzarrak egin go dute, gaur, 19.30ean. Amezketa erabilera anitzeko gelan. Ostegunean, berriz, 18.30ean izango da hitzordua, Alegiara Korrikan parte hartzera joateko. Ostiralean, 20.00etan Bidaia Intimoak dokumentala proiektatu da, eta igandean, 12.00etan hamaiketako izango da Korrikaren alde.

### ↓ Iragarki laburrak

#### LAN ESKARIA

**Etxeko lanetarako.** Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesatuak honako bi telefono hauek batera deitu dezakete: 943 696882 edo 606 521992.

#### GALDUTAKOAK

**Txakurra.** Pasa den igande goizean, Apparta industrialdean Setter Ingles arrazako eta marroi-txuri koloreko txakurra galdu zen. Ikusi duenak edo zerbait jakin dezaketen edonork, deitu dezala 637 998926 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Peio Olano lizartzarra aske geratuko da gaur, bermea ordaindu eta gero

15.000 euroko bermea eskatu diote; urtarrilean hiru urte egin zituen preso, eta epaiketaren zain geratuko da orain

**Iñigo Terradillos** Lizartza

Peio Olano lizartzar preso aske geratuko da gaur arratsaldean, 15.000 euroko bermepean. ETAko kidea izatea leporatuta epaiketaren zain zegoen Olano Murtziako (Espainia) espetxean. Iragan urtarrilean hiru urte bete zituen preso.

Onintza Ostolaza Peio Olanoren abokatuak baieztatu duen moduan, atzo goizean jaso zuten epailearen autoa. Duela hilabete prozesatu, eta bere espetxeratze egoeran mantentzea erabaki zuten; «guk horren aurkako helegitea jarri genuen, eta epaileak onartu egin digu auzipetuta jarraitzen duela, baina aske egon daitekeela 15.000 euroko bermea ordainduta», adierazi du Ostolazak. Bada, bermea ordaindu, eta epaitegian tramiteak egingo dituzte gaur goizean, eta arratsalde iluntze aldera lizartzarra aske utziko dutela espero dute.

Abokatuak azaldutakoaren arabera, Olanok berak atzo eguerdirako oraindik ez zekien aske geratuko dela: «Bere senideek badakite, beraz, etxera deitzen duen unean edo aske utziko duen unean bertan jakingo du berria». Bestalde, Olanoren sendiko kideak bermearen tramiteak bukatu ostean abiatuko dira Murtziara, lizartzarra preso dagoen kartzelara.

## Epaiketa, datarik gabe

Behin aske geratuta, epaiketaren zain jarraituko luke Peio Olanok, baina hori noiz egingo litzatekeen zehaztu gabe. Hain zuzen ere, Os-



Olanok atxilotu ostean Lizartzan egin zuten elkarretaratzetako bat. HITZA

tolazaren arabera, hori litzateke aske utzi izanaren arrazoietako bat: «Preso egonik lau urte egon zaitzake gehienez epaiketaren zain, baina behin aske utzita ez dago gehienezko epe hori». 2014 urteko urtarrilean beteko zituen Olanok lau urte espetxean, eta data hori baino lehen egin behar-ko lukete epaiketa preso egongo balitz.

ETAko komando bateko kide izatea leporatzen diote Peio Olanori, baina akusazio zehatza ez dute oraindik ezagutzen. Hori prozedura aurrera doan heinean zehaztuko du fiskaltzak. Guardia Zibila 2010 urteko urtarrilean 7an atxilotu zuen Lizartzan, Fernando Grande Marlaska Espainiako Auzitegi Nazionalako epaileak agindu zuen operazioan. Gaueko hamabiak inguruan iritsi zen Guardia Zibila Lizartzara, eta Olanoren etxea eta haren gurasoena miatu zituen goizeko laurak arte. 2009 urteko otsailean Salamancan (Espainia) ustez ETArena zen auto bat aurkitu zuen

Poliziak lehergaiekin, eta horrekin lotu zuten Olano.

## Beste zigorra, beteta

Regina Otaola (PP) Lizartzako alkate izandakoari heriotza mehatxua egin ziola egotzita, Espainiako Auzitegi Nazionalak bi urteko espetxe zigorra, hamabi mila euroko kalte-ordaina eta kargu publikoak betetzeko zortzi urteko inhabilitazioa ezarri zion Peio Olanori. 2007ko irailaren 7an izan zen ustezko mehatxua, herriko jaietan Otaola udaletxean Espainiako bandera jartzen ari zela. Epailearen arabera, «hil egingo zara» oihu egin zion Olanok. 2007ko udal hauteskundeetan Espainiako Justiziak Lizartzako ezker abertzaleko hautagaitza baliogabe utzi zuen eta PPK horregatik lortu zuen alkatezta.

Bada, Onintza Ostolaza abokatuak adierazi duenez, zigorra betea da Olanok: «Aldi berean zigor hori, eta ETAko kide izatea leporatzen zaion auziarengatik zigor prebentiboa betetzen egon da».

# Gizakiaren kontura



## Bioaniztasunetik

**Jon Ander Galarraga**

Biologoa

**B**adira hiru animalia, animaliez tutik ez dakienak ere ezagutzen dituenak. Animalia hauek, txikiak eta izuak beraiek, gizakiaren atzetik ibili dira milioika urteetan zehar; gure migrazioetan zehar lagundu digute eta itsaso zabalak zein zeru goiak igarotzeko gai izan garen garaian ere, gure atzetik joan dira, beste kontinenteak konkistatu eta arazo ekologiko larriak sortuz. Animalia hauek ez dira gure gorputzetako parasitoak, baina bai gure gizartearen *aprobetxatutakoak*. Gure bizimoduak sortzen dituen hainbat hondakinez elikatzen dira eta arrakasta handia izan dute, tarteka osasun arazo bihurtuz.

Hirukote hauetatik lehenengoa eta txikiena, txolarrea edo torrotxoria (*Passer domesticus*) dugu, munduan hedapen handiena duen hegaztia, gure kontura beti ere! Nekazaritza sortu zenean hurbildu zitzaizun txoritxo hau, nonbait atsegin zituen guk landatutako zekaleak eta frutak! Gaur egun, ordea, ez da oso mokofina eta edozer gauza jateko gai da. Hala ere, badira, hiriguneetako txolarre eta herrietako txolarreen arteko ezberdintasunak. Dirudenez, herri inguruetatik txolarreak askoz ere gehiago mugitzen dira janari bila eta atsegin dute, noizean behin, belardietara eta basoetara elikagai freskoak jatera joatea. Hiriguneetako txolarreak, ordea, askoz ere gutxiago mugitzen omen dira, eremu txiki batean edozein motatako elikagaiak bantituzte eskuragarri eta... Eskura edukita, zertarako mugitu? Txori txikia den arren, bere eremuak gogotsu babesten ditu eta heriotzerainoko borrorak izaten dira txolarre arren artean. Zergatik? Emeak lortzeko, zergatik bestela? Hemen... betikoa!

Bigarren animalia, etxe xagua dugu (*Mus musculus*). Badira beste hainbat xagu mota: landa-xagua (*Mus spretus*), basasagua (*Apodemus sylvaticus*)... baina, etxe xagua dugu denetan ezagunena eta askotan gorrotagarria. Izan ere, xagu hau gure kontura bizitzera egokitu da. Atsegin ditu gure etxe eta ukuluetan biltzen ditugun elikagaiak, eta hau gutxi balitz, oso ugalkorra dugu animaliatxo hau, urtean sei kumaldi eduki ditzakeelarrik, kumaldiko 14 xagutxo jaiotz! Esaten dute, xaguak hamar kilo gehiago pisatuko balute, munduko konkistatuko luketeela. Baina, hamar

kilo gehiago pisatzekotan, hamar kilo gehiago jan beharko lukete eta hau egin ezean, hamar aldiz kume gutxiago jaiotzeko... eta ez lukete mundua konkistatuko, gu gehiengoa izaten jarraituko baikenuke! Gora *Homo sapiens*!

Azken animalia aurkezteko ordua iritsi da. Xagutxoak nahiko txiki eta maitakorrek diren arren eta azken honek xaguaren antza duen arren, ez du itxura oso maitakorra. Izan ere, xagua baino zertxobait handiago da, isatsa luze eta ilerik gabea du, ile lakatza eta mutur luzea. Animalia hau arretoria (*Rattus norvegicus*) da eta guk nahi ala ez, gure gizartearen zati da.

Gure hiri eta herrien azpian bizi da, hodieta barrena edo beraiek egindako galerietan barrena. Gautarrak dira orokorrean, atsegin zaie ura eta igerilari bikainak dira. Edozer gauza jateko gai dira, baita beraien artean ere. Urterto milioika euro gastatzen ditugu beraiek akabatzen. Gizakian tronbosia eta enbolia ekiditeko produktu bera erabiltzen da arratoiak akabatzeko.

Baina, ba al zenekiten etxe xaguaren predatzaile nagusia dela? Agian, gure baserrietan, kantuan partez arratoiak eduki beharko genituzte. Arratoiak etxekotzen hasi beharko genuke eta ugaltzeko gai diren abiadura ikusita, ziurrenik, pare bat urtetan, erabat etxekotutako arratoi espezie berri bat sortuko genukeela, zakurra bezain fidela eta katua bezain ona xaguak harrapatzen!

Azken eurite hauetan, gure ibaiak goraino egon dira urez eta arratoi bizi eremuak erabat urez bete dira. Gauzak horrela, hildako arratoiak beteta egon beharko lukete gure ibai ertzek. Baina ez da horrela izan. Arratoiak zentzumen berezi bat ote dute ibaien inguerak atzemateko?

Ez dut animalien seigarren zentzumenean sinesten. Dakidan gauza bakarra, arratoiak lurpean galeria ugari egiten dituztela da, maila ugarietan zehar, Londresko metroa bezala. Ibaiek igotzean, beheko mailak izaten dira lehenak urez betetzen, guk gure etxetik ibai goraka doala atzeman aurretik, arratoiak beheko galerietatik gorantz doaz ihesi. Eta nora ote doaz? Gauean gure kaleetan kamerak ipiniko bagenitu, ehunka arratoi migrazioak ikusiko genituzke, inguruko mendi eta teilatuetan barrena ihesi. Ikusten ez badugu ere, ez du esan nahi ez denik gertatzen!

Eta ikusi behar duzue [www.euskalnatur.net](http://www.euskalnatur.net) orrialdea da. Merez du, gure fauna eta floraren entziklopedia bikaina baita. Eta bestelako edozer zuzenean esan nahi badidazue, idatzi [bioaniztasunetik@hotmail.com](mailto:bioaniztasunetik@hotmail.com) era edo zuzen etxera konpostagailu bat ipintzera doan biologoari galdetu!

# Entzunaldi ugari eskainiko ditu Loatzo musika eskolak, martxoan

**I. Terradillos**

Loatzo musika eskolaren eskutik hainbat entzunaldiz gozatu ahal-ko da martxoan. Bihar, esaterako, zeharkako flautaren entzunaldia izango da, Altzoko ermitan, 18:30ean, eta ostiralean, txeloa eta kantua izango da, Villabonako musika eskolan, 19:00etan.

Datorren asteari dagokionez, astelehenean, hilaren 18an, Irurako musika eskolan perkusioa izango da, 19:00etan. Hilaren 19an, berriz, Iruran, tronpeta, tronboia eta bonbardino izango da, 19:00etan; Villabonan, gitarra da, 19:00etan; eta Alegian gitarra, kultur etxean, 20:00etan. Hilaren 20an, Ibarrako kultur etxean, sa-

xoa izango da, 18:30ean, eta Iruran, pianoa 18:00etan. Hilaren 21ean, Altzon, eskusoinua izango da, 19:00etan, eta Adunan, txistu, 19:00etan. Hilaren 22an, Anoretan, biolina izango da, 18:00etan, Iruran, klarineta 18:30ean, Villabonan trikia 18:30ean, Alegian dultzaina 18:00etan, eta Zizurkilan, pianoa, 18:00etan.

Martxoaren San Emakumearen nazioarteko Eguna izan zen eta bi eskualdeetan hainbat ekitaldi izan ziren, parekidetasuna aldarrikatu eta emakumeak elkarrekin egoteko.

# Aldarrikapena eta festa, uztarturik

## Erredakzioa

**E**makumearen Nazioarteko Eguna izan zen martxoaren 8a eta Tolosaldean zein Leiztaldean hainbat ekitaldi egin zituzten, aldarrikapena eta festa uztartuz. Ekarretarantz egin zituzten, eta, bestek beste, Zizurkil, Ezkubide eta ametz parokideak bermatuko diruarekin leiztaldearen alde kolepean elkartu ziren.

Bere aldetik, Amasa-Villabonako Hutsunea Betez emakumeen elkarrekin arban knitting ekimena burutu zuten Erreboten plazan. Bertako farola batean, elkarrekin kaleak elkarrekin egindako puntu linea zintzilikatu zuten. «Emakumearen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeaz gain, lan horien erakutsi dugu elkarrekin besa ematen dugula, eta elkarrekin egotean ondo pasatzeko aukera dugula», azaldu zuten. Aklarrakapenak ospakizun bihurtu zituzten Tolosan, kalejira morea

Olaso heldien artean. Hain zuzenaz jokoak, Leizto eskolako txaranga, erromeria... giro ederria izan zuten. Korrikaren materiala ere sailatu zuten.

Anoetan atez ateko hondakin bilketa abian jarriko duela azaldu berri du udalak. Hondakin bilketa nota horri babesa emateko elkartu ziren hainbat anoetar, Anoetako Udalak, Anoetako Sortuk eta Anoeta Zeru Zabor taldeak egoteko detaldia erantuz.

Zizurkil, Inaxio Fernandez eta Xabier Olartzabal *Apaiza* izen jaso zuten txapelak, duela 20 urte, lehen Txapel Eguna antolatu zuten taldearen izenean. 70 bat pertsona elkartu ziren Zentroan. Bestalde, txapelaren musika-ketako garaioak Juanjo Olazabal eta Iñaki Urkola izan ziren.

**I**kuski asteburuko argazki, bideo eta albiste guztiak sarean:

**tolosaldea.hitza.info**

**Amasa-Villabona** | Hutsunea Betez elkarrekin urban knitting ekimena egin zuten plazan. [...](#)



**Zizurkil** | Ekarretarantz egin zuten hezkuntzaren bidez parekidetasuna lortzeko. [...](#)



**Amasa-Villabona** | Hutsunea Betez elkarrekin urban knitting ekimena egin zuten plazan. [...](#)



**Tolosa** | Kalejira moreak kaleak alatu zituzten. [...](#)



**Berastegi** | Giro ona nagusitu zen emakumeen arteko jokoetan. [...](#)



**Aldaba** | 35 emakume elkartu ziren igandeko bazkarian. [...](#)



**Altzo** | 27 emakume elkartu ziren afarian. [...](#)



**Belautza** | Martintxo baserriaren ondoan landatu zituzten zuhaitzak. [...](#)



**Alegia** | Belostegin eta Langauren aritu ziren landaketan, San Juan eskolakoak. [...](#)



**Anoeta** | Atez atekoaren aldeko argazkia alera zuten hainbat herritarrek. [...](#)



**Zizurkil** | Xabier Olartzabal Apaiza eta Inaxio Fernandez, txapelaren. [...](#)



**Ibarra** | Korrika Egunean, bestek beste, haurrentzako jokoak antolatu zituzten. [...](#)



**Tolosa** | Biga Enkantean saldutako zenbait abelburu. [...](#)





**Kirolak****↓ Kirol emaitzak****PILOTA**

<b>LEHEN MAILAKO BINA KAKO PILOTA TXAPELKETA</b>	
<b>Ligaxka, 12. jardunaldia</b>	
<b>Bengoetxea VI.a-Beroiz</b>	22
Arretxe-Begino	15

Olaizola II-Zabala	22
Xala- <b>Barriola</b>	12

<b>Sailkapena</b>	<b>J</b>	<b>I</b>
1. Irujo-Zabaleta	12	9
2. <b>Bengoetxea VI</b> -Beroiz	12	9
3. Olaizola II-Zabala	12	8
4. Titin-Merino	12	6
5. Berasaluze-Albisu	12	5
6. Ezkurdia-Zubieta	12	4
7. Xala- <b>Barriola</b>	12	4
9. Arretxe-Begino	12	3

<b>Hurrengo jardunaldia</b>	
<b>Bengoetxea VI.a-Beroiz</b>	
Ezkurdia-Zubieta	
Xala- <b>Barriola</b>	
Irujo-Zabaleta	

<b>BIGARREN MAILAKO PILOTA TXAPELKETA</b>	
<b>Ligaxka, 9. jardunaldia</b>	
<b>Olazabal-Peña</b> (ordezkoa)	22
Elezkano-Mendizabal	6

<b>Sailkapena</b>	<b>J</b>	<b>I</b>
1. Gorka-Zezilio	9	8
2. Apeztexea-Larrinaga	9	7
3. Rico IV-Untoria	9	6
7. <b>Olazabal</b> -Arruti	9	2

<b>Hurrengo jardunaldia</b>	
<b>Olazabal-Arruti</b>	
Lemuno-Aretxa	

<b>ARETO FUTBOLA</b>	
<b>HIRUGARREN MAILA</b>	
<b>23. jardunaldia</b>	
Goierri- <b>Ibarra</b>	2-2
<b>Hirukide</b> -Soloarte	3-3
<b>Laskorain</b> -Egintza	6-2

<b>Sailkapena</b>	
1. Aurrera V.	55p
2. <b>Ibarra</b>	54p
3. Bilbo	48p
4. Santurtzi	46p
5. <b>Hirukide Tolosala</b>	41p
6. Goierri	38p
7. <b>Laskorain</b>	35p
8. Inter Eder	31p
9. Soloarte	31p
10. Mallabia	26p
11. Santurtzi	26p
12. Buruntza	24p
13. Zarautz	24p
14. <b>Egintza</b>	22p
15. Sestao	16p
16. Gora	6p

<b>Hurrengo jardunaldia</b>	
<b>Ibarra-Inter</b>	
<b>Egintza-Hirukide</b>	
<b>Laskorain</b> -Santurtzi	

<b>FUTBOLA</b>	
<b>ERREGIONAL OHOREZKOA</b>	
<b>25. jardunaldia</b>	
<b>Tolosa</b> -Oiarzun-	0-1

<b>Sailkapena</b>	
1. Oiarzun	56p

2. Hernani	54p
3. Real Union	52p
8. <b>Tolosa</b>	34p

<b>Hurrengo jardunaldia</b>	
<b>Beti Gazte-Tolosa</b>	

<b>SASKIBALOA</b>	
<b>LEHEN MAILA</b>	
<b>20. jardunaldia</b>	
<b>Bide Bide</b>	<b>88</b>
PFerd Araberri	51

<b>Sailkapena</b>	
1. Asesoria SAF	15-6
2. Askartza	15-6
3. Lizua.com	14-7
7. <b>Bide Bide Donostia</b>	<b>12-9</b>

<b>Hurrengo jardunaldia</b>	
<b>Mikeldi- Bide Bide Donosti</b>	

<b>SOKATIRA</b>	
<b>GOMA GAINEKO 8X8KO GIZONEZKOEN EUSKAL HERRIKO SOKATIRA</b>	
<b>TXAPELKETA, 600 KILOTAN</b>	
<b>Hirugarren jardunaldia</b>	
<b>FINALA</b>	
<b>Saioko ligaxkako sailkapena</b>	

1. <b>Ibarra</b>	<b>13 tanto</b>
2. Abadiño	13 tanto
3. Napurrak	9 tanto
4. Sokarri	6 tanto
5. Iparralde	3 tanto
6. Murueta	0 tanto

<b>Azken sailkapena</b>	
1. <b>Ibarra</b>	3 puntu
2. Abadiño	5 puntu
3. Napurrak	4 puntu
4. Sokarri	3 puntu
5. Iparralde	2 puntu
6. Murueta	Puntu 1

<b>GOMA GAINEKO 8X8KO EMAKUMEZKOEN EUSKAL HERRIKO SOKATIRA</b>	
<b>TXAPELKETA, 500 KILOTAN</b>	
<b>Bigarren jardunaldia</b>	
1. <b>Ibarra</b>	<b>3 puntu</b>
2. Badaiotz	2 puntu
3. Bizindar	Puntu bat

<b>Sailkapen orokorra</b>	
1. <b>Ibarra</b>	<b>5,5 puntu</b>
2. Badaiotz	4,5 puntu
3. Bizindar	2 puntu

<b>SHARE</b>	
<b>BETERANOEN SHARE</b>	
<b>TXAPELKETA (Gizonezkoak)</b>	
J. Balerdi- I. Yurrita	2
I. Caballero- I. Artola	1
(15/12 11/15 10/1)	

J. Balerdi- I. Yurrita	2
Juan Manuel - I. Olano	1
(14/15 15/14 10/4)	

<b>SHARE ELKARTEA SARIA (Gizonezkoak)</b>	
J. Apeztegia - J. Lopetegi	40
L. Limousin - U. Mendizabal	30

F. Santano - A. Artola	33
A. Lizaso - D. Vinuesa	40

# Adunarako igoeran irabazi du X. Aiztondo Klasikoa Vicente Garcia de Mateosek

Hiru ordu eta 36 minutu behar izan ditu garaileak Zizurkil Goiko helmugara ailegatzeko

**Itzea Urkizu** Zizurkil

Gsport taldeko Vicente Garcia de Mateos txirrindulariak eskuratu du Aiztondo Klasikoaren hamargarren lasterketako garaipena, ibilbidea 3 ordu eta 36 minututan amaituta. Igandean jokatu zuten klasikoa, eta 144 kilometroko ibilbidean barrena, milaka ikuslek eman zizkieten animoak kirolari, bai lasterketan zehar, bai eta Zizurkilgo helmugan ere.

Tropeletik ihes eginda, bederatzirindularik aurrea hartu zuten gainerakoei: Lechuga, Miguel Benito, Diego Rubio, Ibai Davoz, Julen Mitxelena, Javier Sarda, Antton Iburguren, Alberto Gallego eta Vicente Garcia de Mateos bera zeuden ihes egindako tropetxoan.

Adunara azken aldiz igotzeko unea iritsi zenean, ordea, Bicitas Rodriguez txirrindulari taldeko Alberto Rodriguezek hautsi zuen lasterketa, tropeletatik ihes eginez. Garcia de Mateos irabazleak, ordea, eutsi egin zion Rodriguezen erritmoari, eta biek hartu zuten lasterketa burua. Aipatzekoa da, hasieratik erritmo biziko lasterketa izan zela X. Aiztondo Klasikoa, eta ihesaldiak protagonista izan zirela 144 kilometroetan barrena. Horren adibide dira,



Adunarako azken igoera, Rodriguezekin batera egin zuen. J. AMONARRIZ

txirrindulariek egindako hainbat erasoaldi; besteak beste, lehen kilometroetan Peio Olaberria, Victor Gil, Diego Tirilonte, Sebastian Mora, Peio Goikoetxea, Medina eta Txoperenak burututakoa.

**Eskarmendun amateurra**  
Hamaika lasterketatan zailduta txirrindularia da Garcia de Mateos, 24 urte dituen arren. Besteak beste, Caja Rural, Froiz, TransEnvalira eta Gsport txirrindulari taldeetako kide izan da azken urteotan.

## ↓ X. Aiztondo Klasikoa

### SAILKAPEN OROKORRA

1. <b>Vicente Garcia de Mateos.</b>	(3:36:46)
2. <b>Alberto Gallego.</b> (+0:04)	
3. <b>Julen Mitxelena.</b> (+1:06)	
4. <b>Miguel Benito.</b> (+1:07)	
5. <b>Diego Rubio.</b> (+1:07)	
6. <b>Antton Iburguren.</b> (+1:07)	
7. <b>Pablo Lechuga.</b> (+1:11)	
8. <b>Borja Abasolo.</b> (+1:22)	
9. <b>Antonio Pedrero.</b> (+1:24)	
10. <b>Javier Sarda.</b> (+2:07)	

# Loic Chetout baionarra nagusitu da Lizartzako Insalus sarian

Esprintean amaitu du lasterketa, eta Lehendakari Txapelketako lehen postua sendotu du

**I. Urkizu** Lizartza

Loic Chetout baionarrak esprintean irabazi du XXV. Insalus Saria, Lizartzan. Naturgas Energia taldeko kideak, nagusitasun osoz amaitu zuen proba pasa den larunbatean, helmugara iritsitako hamar txirrindulari inguruko tropeletxoan gailenduta.

Lehendakari Txapelketako bigarren lasterketa izan zen larun-



Lehendakari Txapelketako lehen postua sendotu du Chetout-ek. IGL

batekoa, eta joan den astean ere Chetout bera izan zen garaile, lehen jardunaldian.

Horrela, beraz, lehen postua sendotu du Naturgas Energia taldeko txirrindulari lapurtarrak. Aipatzekoa da, Baque txirrindulari taldeko Antonio Angulo izan zela bigarren helmugako esprin-

tean, eta hirugarren postua, berriz, Caja Ruraleko Jesus Albert Rubiok eskuratu zuela.

Mendiko saria, berriz, Alberto Justerentzat izan zen, hau ere Caja Ruralekoa. Guztira, 120 txirrindulari inguruk parte hartu zuten Lizartzako Insalus Saria lasterketan.

## Gizonezkoen 600 kiloko txapela, Ibarra

Ibartarrek lehen aldiz eskuratu dute garaipena, goma gaineko Eusdikoko sokatira txapelketan

**I. Urkizu** Ibarra

Abadiñoren aurkako norgehiagoga estuaren ondoren, gizonezkoen 600 kiloko 8x8 sokatira txapelketan, Euskadiko txapela jantzi du Ibarra sokatira taldeak. Saioa Ibarra Belabietako kiroldegian jokatu zuten, pasa den larunbatean, 140 ikusle ingururen aurrean.

Lehian, berriz, ibartarrekin batera, Napurrak (Ezpeleta, Lapurdi), Sokarri (Arrigorriaga, Bizkaia), Abadiño (Abadiño, Bizkaia), Iparralde (Urduliz, Bizkaia) eta Murueta (Murueta, Bizkaia) taldeak aritu ziren.

Txapelketa honetan ohikoa den moduan, ligaxkarekin hasi zen lehia, eta txandak zozketa bidez erabaki zituzten.

Horrela, lehen itzulian, Sokarri izan zuen aurkari Ibarra taldeak, eta ibartarrak suertatu ziren garaile.

Bigarren itzulian, pasa den jardunaldietako sailkapeneko bi talde onenak lehiatu ziren; Ibarra eta Napurrak, alegia. Bi tiraldiak ibartarrek irabaziaz, Ezpeletako taldeak txapela eskuratzeko aukerak galdu zituen, Abadiñoren aurkako tiraldia ere galdu egin baitzuten. Gauzak horrela, Abadiño eta Ibarra bilakatu ziren, txapela irabazteko hautagairik sendoenak.

Beren arteko lehian, Abadiñoko taldeak irabazi zuen lehen tiraldia, epaileak hiru falta adierazi baitzizkion talde ibartarrari. Bigarren tiraldia, berriz, hasierahasieratik Ibarren aldera joan zen (02:00). Ligaxka horrela amaituta, kitarakoan erabaki behar izan zen, txapela eskuratzeko norgehiagoka.

Kitarakoan bi tiraldiak Ibarra taldeak eskuratu zituen, eta nagusitasunez egin ziren Euskadiko txapelaren jabe. Lehene tirala-



Lehen aldiz irabazi dute ibartarrek, 600 kiloko txapela. HITZA

dian, azkar eraman zuten soka beren aldera, ibartarrek, 1:14ko denboran. Bigarren saiakeran, berriz, lan gehiago egin behar izan zuten soka beren eremura eramateko, eta 2:32ko denbora osatuz, txapelaldia lortu zuten. Joxemi Uranga, Beñat Jauregi, Joxeluis Agirre, Haritz Ugarte, Galder Ajuria, Mikel Arsuaga, Aritz Goiri eta Lander Otermin izan ziren tiralariak.

**Emakumezkoak bikain**  
Gizonezkoen gisa berean, bide onetik doaz Ibarra emakume-

ak, 500 kiloko 8x8 txapelketan, bigarren jardunaldiko irabazleak izan baitziren; lehen jardunaldia ere eurek irabazi zuten.

Badaiotz (Gasteiz, Araba) eta Bizindar (Artziniega, Araba) taldeak izan zituzten aurkari, eta lehen itzulioa zozketa bidez erabaki eta gero, bi tiralditan gailendu zen Ibarra.

Azken jardunaldi erabakigarriari begira, puntu bateko alde dute Ibarra emakumeek, Badaiotz taldearekiko. Abadiñon jokatu dute, larunbat honetan, azken saioa.

## Arruabarrenak Indian Wells txapelketako final zortzirenak jokatuko ditu

**I. Urkizu** Tolosa

Lara Arruabarrena tenislari tolosarrak, ezusteko harrapatu zuen Roberta Vinci italiarra, eta Indian Wells txapelketako partida irabazi zion; final zortzirenetarako sailkatu da, horrela. Maria Sharapova errusiarra izango du hurrengo aurkaria.

Partida luzea izan zen, Arruabarrenak eta Vincik jokatu zutena; Favoritoen zerrendan hamalagarrena zen Roberta Vinci, baina hala ere, 2-6, 6-4 eta 6-4ko emaitzarekin gailendu zen tenis jokalaria tolosarra.

Lehen seta esfortzu handiegirik gabe irabazi zuen italiarrak, baina bigarren eta hirugarren txandetan, lehen sakeaz baliatu zen Lara Arruabarrena, jokoa bere aldera eramateko. Norghegiogokako unerik zailenetan ere, ez zuen bere burua galtzailatzat jotolotarrak.

## «Azken bi kanaerdikoak falta zirela ere, sei kolpeko alde nuen»

Doneztebeko frontoian Xabier Mindegiari apustua irabazi eta gero, 3.000 euro eskuratu ditu aizkolari leitzarrak

**I. Urkizu** Leizta

Apustu historikotzat jo dute batzuek pasa den igandean Doneztebeko (Nafarroa) frontoian jokatutakoa. Ruben Saralegi aizkolari leitzarrak, 34 segundogatik irabazi zion apustua, Xabier Mindegiari, 3.000 euro irabaziz.

22 urteko leitzarrak, 39 minutu eta 52 segundo behar izan zituen hamar kanaerdiko eta bi oinbiko-

ebakitze, bere lehen apustuan: «Urduritasun pixka batekin hasi nintzen, alde batetik, nire lehen apustua zelako. Era berean, ordea, segurtasuna ere banuen, etxean lan ona egiten aritu naizela banekielako; han lan hori egiteko esperantza nuen, beraz. Jendeak, gainera, babes handia erakutsi dit, eta oso gustura nago».

34 segundok besterik ez zuten banandu aizkolari baten eta bestearen lana, eta 29 urteko Xabier Mindegiak, 40 minutu eta 26 segundotan amaitu zituen egin beharrek lanak; azken urteotako aizkora apusturik estuena izan zen, horrela. «Hasieratik oso parean joan ginen. Gainera, bera egur gogorrekin hasi zen, eta ni

bigunekin; une batean, beraz, ez genekien nor ote zihoan aurretik. Lan erdietan, oso tarte txikiarekin aurretik pasa nintzen, eta azken bi kanaerdikoak falta zirela ere, sei kolpeko alde bakarrik nuen. Apustua oso estua izan zen uneoro, beraz». Lehia honen lekuko, 400 ikusle inguru bildu ziren Doneztebeko frontoian, eta txalo zaparrada artean eman zioten amaiera apustuari.

**Txapelketak prestatzera**  
«Orain, momentuz, deskantsatu egingo dut», azaldu du aizkolariak. Bere lehen apustua ondo atera zaio, eta esperientzia «oso ona» izan dela nabarmendu du; horregatik, ez du ezekorik esa-



Ruben Saralegi aizkolaria. HITZA

ten, beste apusturen bat burutzeko aukeraren aurrean: «Aizkoran, betiere, apustuek beste giro bat sortzen dute, eta beste prestigio bat ere badute. Nik, hasi nintzenean, apusturik egiteko asmorik ez nuen, baina Mindegiak erroka bota zuenean, egiteko aukera ikusi nuen, eta hartu egin nion». Orain, hala ere, Nafarroako zein Euskal Herriko federazioko txapelketak prestatzeari ekingo dio Ruben Saralegik.

## Xala eta Barriola finalerdietan sartzeko aukerarik gabe geratu dira

**I. Urkizu** Leizta

Xala eta Barriola binakako esku pilota txapelketako finalerdietatik kanpo geratu dira. 22-12 galdu zuten, asteburuan, Olaiolla II eta Zabalen aurka, eta sailkapeneko zazpigarren postuan amaitu dute fasea. Bengoetxeak eta Berroiek, berriz, bolada ona sendotu dute, finalerdietarako txartela poltsikoan izanda ere, garaile suertatu baitziren Arretxe eta Beginoren aurka.

### ● Hilberriak eta urteurrenak

## ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



### JOSE IGNACIO SASIAIN OLIDEN

Gizon atsegina ia jatorria denontzat lagungarri Momentu zailenetan ere beti semeen euskari Zure karrera eta indarra irakutsi diguzu sarri Familia aurrera ateraz Aita, lagun maiztagarri Gure bihotzetan Jose inaxio Aitz, orain eta beti.

lortzen kasidilla

ZUMA, 2013ko martxoaren 12a



### ANTTON LEKUONA GANTXEGI

Gurekin geratzen da zure iriparra, eskerrik asko osaba.

Lekuonatar ilobak

ZUMARRAGA, 2013ko martxoaren 12a



GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LANOTUTA
BEROENA	9°
HOTZENA	4°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Eneritz Maiz  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK



**Galtzaundi euskara taldea**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alizo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Irudia Tolosa



## HAURREK MENDIAZ GOZATU DUTE

Gipuzkoako Mendi federazioak antolatuta, Eskolarteko XXVI. Mendi Lehiaketa izan zen igandean, Tolosan. 200 haurrek gora izan ziren parte hartu zutenak, eta 80tik gora boluntario aritu ziren lanean. Antolatzaileen esanetan, «guztia aurreikusi

bezala atera zen». Eguraldia lagun izan zuten, eta ia haur gehienek, taldeetan banatuta, ibilbide luzea egin zutela adierazi dute. Ibilbide neurtuaren arduraduna Alpino Uzturre mendi elkararteak izan da. HITZA

## Agurrak



urtebetetzak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●●● **agurrak**

## Agenda

### GAUR

#### DEIALDIAK

- **Amezketak.** Gaur, 19:30ean, Korrikaren inguruko batzarra egingo dute balio anitzeko gelan.
- **Alegia.** Atez ateko hondakin bilketa martxan jartzeko gizarteratze prozesua martxan jarri dute, Alegian. Gaur, 18:30ean, San Juan kalean bizi diren herriarrentzat izango da saioa, gaztelera.
- **Irura.** Atez ateko hondakin bilketa martxan jartzeko gizarteratze prozesua martxan jarriko dute, Iruran. Gaur, 19:00etan, euskarazko saioa egingo dute kultur etxean.
- **Tolosa.** Atsedena taldeak mendi irteera antolatuta du Leaburura hilaren 24-rako. 3.mailatik 6.mailara bitarteko gaztetxoentzat izango da. Apuntatzeko hilaren 20a baino lehen 675 70 66 54 edo 62712 20 73 telefono zenbakietara deitu behar da.
- **Amasa-Villabona.** Bazkide kopurua handitzeko, hilaren 1etik Olaederra Kiroldegiko matrikulazioa dohainik da bazkide berrientzat (aurrez bazkide izan eta baja eman zutenentzat ez da doan). Tarifa berriak eta

2013ko egutegia [www.villabona.net/webgunean](http://www.villabona.net/webgunean) kontsultatu daiteke.

- **Amasa-Villabona.** *Hondakin onena sortzen ez dena* lelopean Amasa-Villabonako Sorkut hitzaldia eskainiko du. Gurea zine aretoko erakusketa gelan izango da, 19:30etik aurrera. Aurrera begirako plangintza aurkeztuko dute.
- **Tolosa.** Mendi Film jaialdiaren barruan, gaur, 19:30etik 21:40era *Ofsouls+Water: The Nomad, Unicorn Shasimi, Non Così Lontano, Erhard Loretan: respier l'odeur du ciel eta Honnold 3.0* ikusteko aukera izango da, Leidor aretoan. Sarrerak leihatilan erosteko aukera izango da, 5 euroren truke.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

## Egin HITZAREN HARPIDEDUN

otsailaren 1etik  
martxoaren 31ra arte,  
ETA JASO

**EKAIN**  
sagardoa  
6 botilako  
kaxa bana



Harpidedun egiten diren guztien artean

Orduñako Aisia hotelean, bi pertsonentzako asteburu baterako egonaldia ZOKATUKO DUGU

Harremanetarako:  
902 82 02 01  
[harpidetza@hitza.info](mailto:harpidetza@hitza.info)



**hitza** info